



OSASUNTSU EGON NAHI BADUT, ESKUAK ONDO GARBITUKO DITUT

Helburuak

- Esku Garbiketaren Eguna ospatzea.
- Sormena sustatzea eta ahozko adierazpena garatzen laguntzea, parte hartzeko eta adierazpen askatasunerako eskubideak bultzatuz.
- Eskuak garbitzeko ariketari buruzko ezagutza sendotzea, haurretan eragiten duten zenbait gaixotasun prebenitzeko funtsezkoa den heinean.
- 6. Garapen Iraunkorrerako Helburuaren (Edateko ura eta saneamendua) aldeko TANTAK eskola-kanpaina bultzatzea.

Garapena

Jarduerarekin hasi aurretik, "Bilatzen da: Koronabirus" kartela jarriko da ikasgelan eta eskolan SARS-Cov-2 birusari aurre egiteko hartu beharreko neurriak zabaldu eta gogoratzeko. Ikasgela, korridore, komuna eta igarotze-gunetan jar daiteke ikasturte hasieratik eta, halaber, sare sozialetan zein eskolak familiei bidaltzen dizkien jakinarazpenetan ere parteka daiteke.

Jarduerarako, esku garbiketaren gaia asanbladan aipa daiteke, ariketa horrek duen garrantziaz dagoeneko dakigunaren inguruko ideia bat osatzeko.

- Zenbat aldiz garbitu behar al ditugu eskuak egunean?
- Noiz da beharrezkoa eskuak garbitzea?
- Xaboia behar al dut? Zergatik?

Beharko diren materialak

- "Eskuak uretan" Olerkia.
- Ura eta xaboia.



- Nola garbitu behar ditut eskuak era egokian garbitzeko?

"Eskuak uretan" olerkiak erabil dezakegu, oinarri gisa, eskuak garbitzeko teknika azaltzeko. Olerkiak ondoko alderdi garrantzitsuak nabarmentzen ditu:

- Ura eta xaboia erabiltzeko beharra.
- Esku-azpiak, atzealdeak, behatz bakoitza eta azkazalak ondo garbitzearen garrantzia.
- Urberritzeko eta eskuak idortzeko unea.

Esku garbiketa emozio positiboekin lotzen du olerkiak. Lagungarria izan daiteke ohitura hori txikienean artean zabaltzeko. Doinua jarritz gero abesti bilaka dezakegu, eskuak garbitzen ditugun bitartean abesteko.

Eskuak uretan!

Jolasean aritu ostean
Atsedean hartu dute bi eskuek
Uretan jartzeko unea dela
Adierazi die buruak

"Azkarra da oso burua,
Zintzo beti eta erne.
Esku garbiak, esku biziak,
Bakterioen presentziatik askeak"

Larri dago erpuru
Goitik behera oso lohi
Lagun txikiak egin dio oihu
"Nik lagunduko, lasai"

"Erakusle, luze, nagi:
Zatozte garbiketara"
"Oraintxe!, izan da erantzuna
Eta beraiekin eraman dute beste
eskua.

"Hamar hatz gara, bost bikote
Eta bi esku-azpi, baketsu."
Atzealdeak, alai,
Aldeetan kokatu eta jai.

"Ez gurekin ahaztu!"
Esan dute azkazalek
"Ñimiñoak bagara, bai,
Garbi eta distiratsu ere bai!
Erakuslek, gidatu
Nagik, animatu
Igurtz betean da Erpuru
Txikiak dio: "Itxaron,
Ura eta xaboia falta zaizkigu"
Korrika doa nagi: "Beren bila noa
ni!"

"Non zaude, xaboi?
Ur, non zaude?
Ez dago garbiketarik, zuek gabe."

Lagunak etorri eta berehala,
Garbiketa hasi da
Xaboia besarkatu bezain pronto
Alai entzun da beren kanta:

"Hazka, hazka
Eman, eman,
Aparra sortu,
Kraka urtu"

"Goitik, aldeak,
Behetik, atzealdeak,
Eskuak, hatzak
Arretaz igurtzi guztiak
Uretan gu dantzan
Eta, azkenik, txit garbiak"

"Gora, aupa! Dio lehen eskuak
"Hurra!" Erantzun du beste
eskuak.
"Hemen da eskuoihala,
Arretaz idortuko dugu gure azala"

"Zein garbi
Zein polit
Daude orain
Nire hatzak"

"Zein garbi!
Distiratsu
Geratu dira
Azkazalak"

"Gustura gaude orain!"
Diote, batera, bi eskuek
"Zein eder, zein garbi!"
Oihu egin du buruak.

Eskuak zikindu ostean
buruak diotenari entzun:
Osasuntsu egon nahi badut
eskuak ondo garbituko ditut.



TANTAK, #UNICEFtantak HIGIENEAREN ALDE

#UNICEFTantak ekimena ezagutu
eta eskolatik nola parte har
dezakezen jakiteko, ikus:
www.unicef.es/eus/educa/tantak



Jarduera hau egoki daiteke,
#UNICEFTantak kanpainaren alde gure
eskolak abian duen kanpainaren baitan
txertatzeko. Ura, higiene eta
saneamenduaren garrantzia ezagutzea
berebiziko garrantzia duen alderdi bat
da Garapen Iraunkorrerako Helburuak
6. Helburua lortu ahal izateko.

Ikaskuntza taula

Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzako lehen mailetarako egokia den jarduera, beharrezko curriculum-egokitzapenak egin ostean.

HELBURUAK

- Hizkuntza, ezagutza sustatu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko modu gisara garatzea.
- Norberaren gorputza ezagutzea eta kontrolatzea. Norberaren irudi positiboa garatzea.
- Jolasa eta mugimendua, ikasteko erreminta.
- Ingurunea (komuna eta bere osagaiak) eta higieneari loturiko gizarte-arauak deskubritzea.
- Higiene pertsonalak bizikidetzan duen garrantzia barneratzea.

EZAGUTZAK

- Esku garbiketarako osasunarentzat duen garrantzia.
- Eskuak garbitzeko uneak eta teknika egokia.

JARRERAK

- Higiene neurriak barneratzea
- Bizi-ohitura osasuntsuak lehenestea.

GAITASUNAK

- Autonomia pertsonala, behar den guztietan eskuak garbitzeko gai izatea.
- Komunikazio-trebetasunak, ahozko adierazpeneko eta adierazpen fisikoko trebetasunak.

Haurren eta biztanleria globalaren zein eskubide lantzen ditu jarduera honek?

- Osasunerako eta higieneari eta osasunari loturiko prebentzio- eta hezkuntza-zaintzak jasotzeko eskubidea.
- Hezkuntzarako eskubidea eta haurren gaitasun gorenaren garapenean duen papera.
- Parte hartzeko, informazio egokia eskuratzeko eta era guztietako gaien inguruko ideiak eta informazioak bilatu, jaso eta zabaltzeko eskubidea.
- Garapenerako eskubidea.
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak, edateko urari eta saneamenduari buruzko 6.a, gehienbat.